## SECCION AMENA.

# GUAZEN.

(NERE LAGUN CEFERINO ILARRAZA-RI).

Ernaniko bidian
badago gloriya
iji, aja, dijua
gaur jende guztiya.
Eguzki ederrarekin
denbora garbiya
batak besteri galdez
¿non da choch berriya?
Isaburu, Lazkanok
Azkenportu, Kalek
Meloi ta Kacholak
emango zigutek.
Zizarrik ederrena
zingatu naibadek
guazen ariñ mutillak
orlakorik ez dek.
Baserritik baserri
dijuaz gogotik
estomagu tristia
alegratziatik.
Zardin zar parecho bat
brasan kiskaldurik
oliyoz gozatubak
eta maiz eranik.
Kupela tartietan
non nai da jendia
basuak arrapazka
badute jabia.
Lekurikan ez dago
guztiya betia
zalapartare franko
non dan sukaldia.
—Bete zortzigarrena
oraindik bagera—
baso erdiya eranda
bestia lurrera.
Beriala gireman
echien atzera
pareten kontra berriz
eranak atera.
Batzubek tokan eta
bestiak mendira
sagardo baso ayek
maiz ustutzen dira.
Soro, belar gañian
bagari begira
orrelako gustuak
munduban ¿non dira?
Gorritzen eguzkiya
asitzen danian
masallak zabaldurik
illunabarrian:
*Gabon echeko-andria*
esanik atian
balantzaka dijuaz
Donosti bidian.
Berriketarik ez da
falta bitartian
Afrikak, Amerikak
Europa tartian
nastutzen dituztela
denak istantian.
Afariya nai ezik
gorputzen kaltian,
echera junda gero
¡lo bete betian!

MARCELINO SOROA.